

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Garapen informatiko berriak

2016. urtean Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren kudeaketa integralerako aplikazio berrien analisi tekniko eta funtzionala bukatu da, eta 2017an kontratatatu da. Horrez gain, digitalizatu egin da euskara-ikastaren ordezkapenarako diu-laguntzak eskatzeko prozesua.

Beste erakundeetako informatika-lankidetzak

Eusko Legebiltzarren (letradu, informatika-teknikari eta komunikazio-teknikarien prozesua) eta Getxoko Udaleren esku jarri da hautaketa-prozesuak kudeatzeko aplikazioa, azterketa zuzendu dira automatikoki.

IVAPen web orria

Web-orriari dagokionez 2016. urtean 479.912 bisita egin dituzte eta 5.096.659 orrialde begiratu, hau da: batez beste, 3.90 orrialde bisita bakoitzeko. 2015arekin alderatuta, % 47,24 jaitxi dira erabiltzaileak; batik bat, lan-poltsak osatzeko deialdirik egin ez delako. Garrantzitsua da, nolabehi ere, beste datu hau azpimarratzea: erabiltzaile-kopurua jaitxi-ta ere, begiraturako orrialde kopurua % 17,65 jaitxi da, eta horrek erakusten du bisitarien fidelizazio handia dela. Azkenik, % 7,46 ligo da web-orria telefono mugikorretatik sartu direnen kopurua, eta, ondorioz, orriaren zati handi bat berriz diseinatu beharko dugu. itzigarritasun hobea izan dezan.



Halaber, web gunean argitaratu dugu gardentasunari buruzko IVAPeko informazioa, IVAP buruzko informazioa, harremanak herritarrekin eta gizartearen erantzukizuna eta finantzazioa eta kontratazioak.

Jardueren Oroitza 2016



JARDUEREN OROITZA

2016



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

© Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

Edita: Instituto Vasco de Administración Pública
Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea

ISBN: 978-84-7777-523-2

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Grafo, S.A., Avda. Cervantes, 51-edificio 21 - 48970 Basauri (Bizkaia)

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	7
2. IVAPen antolakuntza-eredua	11
3. Kudeaketa arloko mugari eta lorpen garrantzitsuenak	21
4. Zerbitzuak eta produktuak	25
5. Argitalpenak	47
6. IVAPeko kideen parte-hartzea biltzarretan, jardunaldietan eta adituen foroetan	51
7. 2017rako helburu nagusiak	53

1.

AURKEZPENA

IVAPen jardueren Oroitza aurkeztera gatozkizue beste behin, 2016an zehar burutu dugun lanaren emaitza nagusiak ezagutarazteko asmoz, gure zerbitzuaren hartzaile zareten bai herri-administrazioei, bai herritarrei.

Urtearen azken hiru hilabeteetan zehaztu dugu 2017-2020 epealdirako gure Plan Estrategikoa, IVAPek jorratutako laugarren hausnarketa estrategikoaren ondorio gisa. 2004an, 2008an eta 2012an egin genituen aurrekoak.

Hausnarketa estrategikoak IVAPen egoeraren diagnostikoa izan du oinarri, barruko zein kanpoko ikuspegitik, eta IVAPeko pertsonen eta lan-taldeen parte-hartze zuzena izan du. Honako erronka estrategikoak finkatu ditugu epealdirako:

- Bezeroari begirako erakundea
- Erakunde berritzailea
- Kudeaketa aurreratua
- Pertsona gaitu, inplikatu eta baloratuak
- IVAP marka

Halaber, Erakundean lan egiten duten pertsonen gogobetetasuna neurtzeko 5. inkesta egin dugu 2016 urtean. Aurrekoetan bezala, IVAPek bereganatu dituen hiru jendaurreko konpromisoetan oinarritu da inkesta:

- Erantzunak isilpean tratatzekoa
- Aterako diren emaitzen berri ematekoa
- Emaitzen arabera, hobekuntza-ekintza egokiak martxan jartzekoa

Erantzun-maila inkestak lortu duen sinesgarritasunaren erakusgarri zuzena da: lankideen %77k erantzun du, inoiz baino gehiago, eta erantzunen %90 euskaraz izan dira. Emaitzak oso onak izan dira eta ia kasu guztietan aurreko inkestenak baino hobekiak. Datu bat emaitzen, IVAPeko pertsonen gogobetetasun orokorrak, batzaz beste, 3,9 puntu jo ditu batetik bosterako eskalan.

Bestalde, 2016an aplikazio informatiko bat jarri da martxan prestakuntza-ikastaroetako eta hizkuntza-eskakizunetako ziurtagiri elektronikoak luzatzeko, lokalizatzaile baten bidez eta egoitza elektronikoan egiaztatzeko aukerarekin. Era berean, hautaketa-prozesuen kudeaketarako aplikazioan hainbat hobekuntza egin dira, prozesuotan parte hartzen du-

ten pertsonen lanbideko esperientziagatiko eta ikastaroengatiko merezimenduak plataformara igo ahal izan ditzaten. Azkenik, EAEko herri-administrazio guztientzako faktura elektronikoak jaulki ahal izateko beharrezko egokitzapenak egin zaizkie IVAPen aplikazioei.

Komunikazioaren eta gardentasunaren arloan beste aurrerapauso garrantzitsua egin dugu: IVAPen webgunean gardentasunari buruzko atal berezi bat ireki dugu, Erakundearen plan-gintza estrategikoari eta kudeaketa-planen jarraipenari, zerbitzuen katalogoari, aurrekontuaren jarraipenari, kontratuen erregistroari eta abarri buruzko informazioa biltzen duena.

Azpmarratzekoa da, halaber, Administrazio hizkera argiari buruzko bloga martxan jarri izana. Blog honen bitartez IVAPek sare sozialetan duen presentzia indartu nahi dugu eta, gainera, zerbitzu publiko izatearekin eta berrikuntzarekin dugun konpromisoa berretsi nahi dugu. Horretarako, hizkera argia -bai euskaraz eta bai gaztelaniaz- bultzatzea gure lehenetsuneko helburu gisa ezarri dugu, Administrazioaren komunikazioaren esparruan bereziki.

2016 urtean zehar Administrazioaren alorreko zenbait proiektu berritzaile jorratzen jarraitu dugu, 2015ean hasitakoak:

- Hautaketa-prozesuak baliozkotzeko proiektua.
- Proba psikoteknikoak euskarara egokitzea.
- Konpetentzia digitalak baliozkotzeko eredu sortzea.
- Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarekin (DACIMA) elkarlanean tramitazio elektronikoa arrazionalizatzeko eta dokumentu estandarrik sortzeko lanean jarraitzen dugu. Lan horren emaitza dira gure webgunean sarbide irekian dauden eskuliburuak.
- Azkenik, DACIMArekin lankidetzan jarraitzen dugu Aurrerabide, Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuko Eredua, ezartzen eta martxan jartzen, Egiten Ikasi prestakuntza-ekintza programaren bitartez.

Proiektu hauei eta Erakundearen eskumeneko alor guztien berezko jardueri esker, Euskadiko gainerako herri-administrazioekin elkarlanean, herritarrei gero eta zerbitzu eraginkorragoa, efizienteagoa eta elebidunagoa ematea lortuko dugu.

Kudeaketaren balantze guztietan bezala, emaitzak hobetzeko berrikusi beharreko alderdiak agertzen zaizkigu, baina, oro har, gure helburuen betetze-maila oso positibotzat jo dezakegu eta arrakasta horren protagonista nagusiak IVAPen egunez egun publikotasunarekiko konpromisoa betetzen saiatzen diren pertsonak dira.

Beraz, esker mila zuen laguntzagatik



IVAPeko zuzendaritza-taldea

2.

IVAPen ANTOLAKUNTZA-EREDUA

IVAP, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzaren oraingo Gobernantza publikoa eta Autogobernu Sailari atxikia. Euskal Autonomia Erki-degoko administrazio publikoen zerbitzura dihardu eta hiru jardun-eremutan sailka daitezke IVAPen xedeak:

- **Giza Baliabideak:** administrazio publikoen zerbitzurako langileak hautatzea eta prestatzea.
- **Euskara:** administrazio publikoen zerbitzurako langileen euskalduntzea, itzulpenak, interpretazioa, terminologia eta administrazio-hizkeraren normalizazioa.
- **Azterlanak eta Argitalpenak:** ikerlanak egitea eta eskolak ematea, bai administrazioaren inguruan, era zabalean, bai euskal autonomiaren berezitasunen inguruan zehazki, eta baita liburuak zein aldizkari espezializatuak argitaratzea ere.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Lege Jaurbideari buruzko uztailaren 27ko 16/1983 Legean, IVAPen egiturari eta zereginei buruzko alderdi esanguratsuak xedatu ziren; hona hemen:

- Zortzi helburu zehazten ditu eta, helburu horiek aurrera eramateko, atalak, sailak edo zerbitzuak antolatzeke bidea zabaltzen du.
- Erakundearen aginte-erakundeak sortu eta nola osaturik egongo diren eta zein eginkizun izango duten zehazten du. Zaingo Batzordea eta Zuzendaritza dira erakunde horiek.
- IVAPek bere aurrekontua du.
- Lege horrek Oñatiko Unibertsitate Zaharraren eraikinean ezartzen zuen IVAPen egoitza; Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzeko 2/2007 Legegintzako Dekretuak, ordea, hori aldatu egin zuen eta IVAPen egoitza Gasteizen ezarri.

1. TAULA. Zaingo Batzordeko kideak

Zaingo-batzordearen presidentea
Josu Erkoreka, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza publikoa eta Autogobernua Saileko sailburua
Zaingo-batzordearen presidenteordea
Peru Bazako, Eusko Jaurlaritzako Erakunde Harremanetarako sailburuordea
Berezko kideak
Andrés Zearreta, Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoko sailburuordea Maite Iruretagoiena, IVAPeko zuzendaria Fulgen Aledo, IVAPeko idazkari nagusia
Lurralde historikoen ordezkari bana
Adolfo Lander Vera, Arabako Foru Aldundiko Funtzio Publikoko zuzendaria Maite Barruetabeña, Bizkaiko Foru Aldundiko Funtzio Publikoko zuzendaria César González de Heredia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Funtzio Publikoko zuzendaria
Toki administrazioaren hiru ordezkari, EUDELeK izendatuta
José Ramón Molinuevo, Amurrioko udaleko zinegotzia Álvaro Parro, Balmasedako udaleko alkatea Pedro Alegre, Irungo udaleko zinegotzia
Administrazioiko langileen hiru ordezkari, sailburuak izendatuta
Alicia Cristobal Araba, Hutsik, Bizkaia eta Lourdes Etxaniz Gipuzkoa

MISIOA

IVAPen MISIOA da Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioekin lankidetzan aritzea, herritarrei zerbitzu efiziente, kalitatezko eta elebiduna emateko. Lankidetzaren hau zerbitzu publikoaren balio komunetan oinarritzen da, eta honako hauen bidez gauzatzen:

- Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zerbitzurako langileak hautatu eta prestatu.
- Administrazioan euskararen erabileraren normalizazioa eta itzulpengintza ofiziala bultzatu, eta euskarazko terminologia juridiko-administratiboa finkatu eta zabaldu.
- Hizkuntzaren, lege eta administrazioaren, eta kudeaketaren hobekuntzaren arloetan aholku eman eta ikertu.

IKUSKERA

IVAPek euskal herri-administrazio guztiekin lan egin nahi du eta bere marka-irudia sendotuz, erreferentzia-zentro izan nahi du bere lan-esparruetan, produktu eta zerbitzu berritzaile eta kalitatezkoen eskaintzari esker, bezeroari zuzenduta eta teknologia berrien erabilera aurreratuan oinarrituta.

IVAPek autonomia nahikoa izan nahi du herri-administrazio guztiekiko bere Misioa osorik betetzeko.

Halaber, bere egitura sortzen zaizkion behar eta erronken arabera antolatzeko gai izan beharko du, kudeaketa aurreratuaren ildotik. Hori guztia lortzeko, IVAPek pertsona gaitu, inplikatu eta baloratuek osatutako taldea beharko du.

BALIOAK

IVAPek, araubide juridikoak finkatzen dituen balioez gain, hots, herritarrentzako zerbitzu publikoaren etika, efikazia, efizientzia, gardentasuna, objektibotasuna, erakunde barruko zein erakunde arteko lankidetzak, eta pertsonen arteko tratu-berdintasuna, honako balio hauek bultzatuko ditu:

- Bezeroarenganako orientazioa
- Euskararen erabilerarekiko konpromisoa
- Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza
- Parte-hartzea eta talde-lana
- Profesionaltasuna

2017-2020 epealdian IVAPek honako balio hauek landu nahi ditu bereziki: berrikuntza, euskararen erabilerarekiko konpromisoa, efizientzia eta parte-hartzea eta talde-lana. Era berean, azaldutako balioekin bat etorriko den lidergo-estiloa bultzatu nahi du.

EGITURA

HAUTAKETA ETA PRESTAKUNTZAKO ZUZENDARIODETZA

Imanol Uriguen

PRESTAKUNTZA ZERBITZUA	HAUTAKETA ZERBITZUA
---------------------------	------------------------

ZUZENDARITZA

Maite Iruretagoiena

KOORDINAZIO ETA KUDEAKETAKO IDAZKARITZA

Fulgen Aledo

ZERBITZU OROKORRAK		
Informatika	Dokumentazio Gunea	Kalitatea eta etengabeko Hobekuntza
AZTERLAN ETA ARGITALPEN ZERBITZUA		EVETU

EUSKARAKO ZUZENDARIODETZA

Eneko Oregi

HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA ETA NORMALIZAZIO ZERBITZUA			ITZULTZAILEEN ZERBITZU OFIZIALA	
Hizkuntza Prestakuntza	Ebaluazioa	Administrazio Hizkera	Terminologia	Itzulpengintza eta interpretazioa

ZUZENDARITZA

IVAPeko zuzendaria, besteak beste, erakundearen ordezkaria izango da, eta bertako langileen burua. Berak emango ditu egiaztagiriak, tituluak eta diplomak; gainera, gastuak baimendu eta ordainketak aginduko ditu.

KOORDINAZIO ETA KUDEAKETAKO IDAZKARITZA

Zerbitzu eta atal guztiak koordinatuko ditu, eta zuzendaria ordezkatzeko du hura ez dagoenean. Bere mendeko zuzenak dira Azterlan eta Argitalpen Zerbitzua, EVETU (Lurralde eta Hiri Ikasketarako Euskal Eskola) eta Zerbitzu Orokorrak.

HAUTAKETA ETA PRESTAKUNTZAKO ZUZENDARIODETZA

Hautaketaren eta prestakuntzaren gainean egin beharrekoak egitea, horixe du egitekoa. Horretarako, Hautaketa Zerbitzua eta Prestakuntza Zerbitzua ditu.

EUSKARAKO ZUZENDARIODETZA

Euskararen erabilera normalizatzea eta itzulpengintza eta euskarazko administrazio-hizkera finkatzea. Horra zuzendariordetza horren eginkizunak. Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio Zerbitzuak eta Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak osatzen dute zuzendariordetza hau.

PERTSONAK

IVAPen 122 pertsonak lan egiten dute, % 65 emakumeak eta % 35 gizonak, modu honetan banatuta:

- Zuzendaria, emakumezkoa
- Idazkari nagusia eta bi zuzendariorde, hirurak gizonak
- Goi-kargudunen idazkaria (gizonezkoa)
- Zazpi zerbitzuburu, lau emakume eta hiru gizon
- Zazpi arloburu, hiru emakume eta lau gizon
- 75 goi- eta erdi-mailako teknikari, 50 emakume eta 25 gizon
- 26 administrari, 21 emakume eta bost gizon
- Bi menpeko, gizonak biak

Kudeaketa-sistematikari dagokionez, zehaztu beharra dago 2016an IVAPeko kideen % 35 hobekuntza-ekintzen arduradun izan dela, eta % 53k parte hartu duela martxan dauden bederatzi kudeaketa-batzordeetakoren batean, 26 prozesu-talderen batean eta indarrean dauden 12 lan-taldeetakoren batean.



IVAPeko langileak

LANTOKIAK ETA HELBIDEAK

Langile gehienek Gasteizko egoitza dute lantoki, Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia (Lakua), alegia. Hala ere, herritarrek eskueran dituzte IVAPen beste hiru egoitza hauek ere: Bilboko, Donostiakoa eta Oñatikoa.

IVAP - Gasteizko egoitza Donostia kalea 1 01010 Vitoria-Gasteiz	IVAP - Oñatiko egoitza Unibertsitateko etorbidea 20560 Oñati
IVAP - Bilboko egoitza Recalde zumarkalea 18, 1 48009 Bilbao	IVAP - Donostiako egoitza San Bartolomé kalea 28 20007 Donostia

KUDEAKETA-SISTEMATIKA

2001. urtean, IVAPen zuzendaritzak apustu bat egin zuen; hain zuzen ere, Erakunde osoa hartuko zuen etengabeko hobekuntza-proiektu bati ekitekoa. Horrela sortu zen «Kalitate-proiektua» deritzona.

Urte hauetan zehar, IVAPek Kudeaketa aurreratuko ereduaren elementu guztietan lan egin du (lehen, EFQMrako ereduaren irizpide egituraren azpian). Gaur egun, zuzenean laguntzen du «Aurrerabide» Eusko Jaurlaritzako proiektuarekin, Euskadiko administrazio orokorrean kudeaketa aurreratua ezartzeko proiektua, hain zuzen ere. Hauek dira Erakundeak burutu dituen aurrerapauso eta jarduera batzuk:

Estrategia

- Lau hausnarketa estrategiko (2004, 2008, 2012 eta 2016) eta dagozkien lau urtetako plan estrategikoak. Gaurkoa 2017-2020 Plan Estrategikoa da.
- Urteroko kudeaketa-planak, plan estrategikoen hedapena.
- EFQM kalitate-modelo europarraren arabera, lau autoebaluazio.
- Kanpoko ebaluazio bat: zilarrezko Qa.

Bezeroak

- Zerbitzuen kartak: Erakundeak zazpi karta ditu, urtero berrikusten ditugu eta bi urtero ebaluatzen dituzte Q-epea kudeaketa aurreratuaren aldeko euskal erakunde publikoen sareko ebaluatzaileek. Ondoko zerbitzuetako kartak dira:

- Hautaketa: hiritarrei zuzenduta
- Hautaketa: administrazioei zuzenduta
- IZO, Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala
- Prestakuntza
- Liburutegia/Dokumentazio gunea
- Herritarrekiko elkarreragina
- Hizkuntza-eskakizunak ebaluatzeko karta
- Zerbitzuen katalogoa: urtero berrikusten dugu.
- Bezeroen beharrak eta espektatibak ezagutzeko ekintzak.
- Bezero instituzionalen gogobetetasunaren neurketak 2005, 2007, 2010, 2012 eta 2015ean, inkesten bidez. Eusko Jaurlaritzako sailak, foru diputazioak, udalak eta hainbat erakunde publiko izan dira IVAPeko zerbitzuak eskatu dituztenak edo produkturen baten jasotzaile, hala nola, Osakidetza, Arartekoa, Eusko Legebiltzarra, Ertzaintza, Lanbide... 2017an seigarren aldiz bezero horien gogobetetasuna neurtuko dugu.
- Zuzeneko erabiltzaileak diren bezeroak, euskal administrazioetako langileak izaten dira (ikastaro, jardunaldietan parte-hartzaile,...) eta kasu zehatz batzuetan (langileak hautatzeko probetan, jardunaldi jakin batzuetan...) herritar guztiak dira. Horiei guztiei jasotako zerbitzuaren gogobetetasuna adierazteko inkesta betetzeko eskatzen diegu.

Pertsonak

- Harrera-plana.
- Prestaivap: Institutuaren pertsonen prestakuntza plana. IVAPeko langileen eskariak eta behar-diagnostikotik aurrera lantzen den urteroko plana da.
- IVAPeko kudeaketa aurreratuaren ereduaren urteko aurkezpen-saioak.
- Kudeaketa aurreratuaren ereduko bost pertsona ebaluatzaile, Euskalit eta Eusko Jaurlaritzako Kudeaketa aurreratuaren euskal eredia den «Aurrerabide» proiektuko ebaluatzaile lana egiten dutenak.
- 20 pertsona Q-epeako Zerbitzuen kartak ebaluatzeko taldearen kide.
- 26 prozesu-talde, kudeaketa, jarduera eta laguntzarako bederatzi batzordetan sartuta, «Pertsonak» batzordea, besteak beste.
- 12 lan-talde.
- Bi urtero, IVAPeko pertsonen gogobetetasunaren neurketa. 2016an, bosgarren aldiz egin dugu. Ostean, hobekuntza-plana egiten dugu beti.

- IVAPeko langilea Erakundeko zeharkako zerbitzuen bezeroa denean, barne-bezeroaren gogobetetasunaren neurketa. Lehena, 2016an, pertsonen inkestaren barruko atal berria izan da, hainbat zerbitzuko hartzaile bezala, hala nola, ordu-kontrola, itzul-pengintza, laguntza juridikoa eta Prestaivap.
- Barne-komunikazio mapa, aldizka berritzen duguna.
- Lidergoa: definizioa eta konpetentziak berrikusita. Prestakuntza eta 360 gradutako ebaluazioa.

Berrikuntza

- Prestakuntza: laguntzeko, prestatzeko eta aholkuak emateko sistematika (SAC, prozedurari buruzko eskuliburuak)
- Barne-bezeroaren gogobetetasunaren neurketa
- Zeharkako prozesu-mapa

Gizartea


- Bikaintasunaren bidean aurrera egiteko konpromiso-diplomak 2009-2011n
- Prentsako errekonozimenduak, zuzenak eta zeharkakoak
- Bekak, laguntzak eta ikerketa-lanak
- Garapenerako lankidetzak
- Ingurumenarekiko konpromisoa
- Gobernu irekia («Open data»): datu berrerabilgarriko erakusketa publikoa (itzulpen-memoriak, beste administrazio batzuen lan-eskaintza publikoak...)

Emaitzak

- Aginte-taula Integrala, plan estrategiko bakoitzean berrikusten dena. Urteko adierazle estrategiko eta kudeaketako berrikusketa.

Azkenik, bada nabarmentzea IVAPeko gaurko prozesu-mapa, Institutuaren jarduera oinarritzen den zerbitzu eta produktuarako egokitua. Bere zerbitzuak jasotzen dituzten administrazioen eta hiritarren inguruan egituratutako mapa. Izan ere, aurrerapen handia baita aurreko mapei dagokienez, non organigrama zen beren ardatz nagusia.

9 makroprozesu. Kudeaketa-batzordeak



AGINTE-TAULA INTEGRALA

2013-2016 aldirako Plan Estrategikoan, IVAPek aldi horretarako ezarri dituen bost erronkak definitu dira. Ildo horretan, aipatutako erronkak gorpuzten dituzten helburu estrategiko eta estrategien betetze-mailaren jarraipena eta ebaluazioa egite aldera, IVAPek Aginte-taula integrala du.

- Aginte-taulako adierazleak hiru multzotan banatuta daude:
- Aginte-taula estrategikoa: adierazle «strategikoeak» osatzen dute taula hori, eta aukera ematen dute IVAPen «bizi-pultsua» zertan den ezagutzeko. Adierazle horien definizioa Norton eta Kaplan-en *Balanced Scorecard* metodologiaren arabera egin da.
- Kudeaketako aginte-taula: IVAPen jarduera orokorrari lotutako adierazleak.
- Helburu estrategiko batzuen ebaluazioari lotutako prozesuen adierazleak.

3.

KUDEAKETA ARLOKO MUGARRI ETA LORPEN GARRANTZITSUENAK

AURREKONTUA ETA JARDUERARI BURUZKO DATU NAGUSIAK

- Aurrekontua: 19.131.000 €
- 19.213 parte-hartzaile prestakuntza-jardueretan
- 123 parte-hartze hautaketa-epaimahaietan
- 23.642.243 hitz itzulita edo berrikusita
- 14.769 harpidedun Administrazioa Euskaraz aldizkarian
- 11 aldizkarien ale (Administrazioa Euskaraz, Herri Ardularitzazko Euskal Aldizkaria eta Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria)
- 26 argitalpen
- 1.290 funtzionariok egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat
- 36.500 liburu eta aldizkari espezializatu liburutegian
- 479.912 bisita webgunean

2013-2016 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Hirugarren plan estrategiko hau 2009-2012 Plan Estrategikoaren ebaluaziotik ondorioztatuko emaitzen fruitua da, batetik eta IVAPek 2012ko amaieran egin zuen hausnarketa estrategikoarena, bestetik. Orduan, gure interes-taldeak kontuan izan genituen eta bezeroen beharrianak eta igurikimenak ezagutzeko esfortzua egin genuen. Azkenik, IVAPeko langileekin informazio hori guztia egiaztatu ondoren, estrategia osatu genuen.

2013-2016 Plan Estrategikoak berrikusi eta eguneratu egin zituen IVAPen Misioa, Balioak eta Ikuskera, eta finkatu zituen erronkak, helburu estrategikoak eta estrategiak; betiere, Eusko Jaurlaritzaren X. legegintzaldirako *Gobernu Programarekin* lerrokatuta; honako bi lerro nagusi hauekin: 1.12 Administrazio eraginkorra eta gardena eta 1.13 Administrazio irekia.

2013-2016 epealdirako, IVAPeko estrategiak bost erronka nagusi hauek ditu:

- Bete-bete bezeroari begira jardungo duen erakundea izatea
- Produktu eta zerbitzu berritzaileak eta kalitatezkoak garatzea
- Antolaketa malgua izatea eta kudeaketa bikainaren sistematika sendotzea
- Gaitasun handiko, inplikaturako, balioetsitako eta aintzatetsitako pertsonen taldea edukitzea
- Interes-taldeen aurrean duen erreferentzia irudia sendotzea

2016ko maiatzean, IVAPek hausnarketa estrategikoa bete du laugarren aldiz eta hurrengo lau urteetako Erakundearen kudeaketa zuzenduko duen plan estrategikoa onartu berri du, 2017-2020 Plan Estrategikoa, hain zuzen ere. Hausnarketa estrategikoa, bestalde, IVAPeko pertsonen eta taldeen parte hartzean oinarritu da. Parte-hartze hori antolatzeko, zenbait talde sortu ditugu: zuzendaritzak hausnarketa-prozesu osoa bultzatu eta bideratu du. Talde eragilea IVAPeko ebaluatzaileez osatuta dago eta dokumentuak lantzea izan du eginkizun nagusia, kanpo-aholkulariekin batera. Hausnarketa-taldeak balidatu ditu fase bakoitzeko dokumentuak eta bateratu ditu ekarpenak. Azkenik, kontraste-taldea, berriz, IVAPeko lider guztiek osatu dute eta harek onartu ditu azken dokumentuak. Ezin da ahaztu IVAPeko pertsona guztiek parte hartzeko aukera izan dutela gogoetako une gakoetan, hala nola, AMIAk aztertzen, Misioa, Ikuskera eta Balioak berrikusten eta azken dokumentuari ekarpenak egiten.


IVAPeko Zuzendaritza berretsita gelditu denean, berriz, helburu estrategikoak hedatu eta 2017ko Kudeaketa-plana lantzeari ekin zaio, 2016ko abenduan eta 2017ko urtarrian.

KUDEAKETA-PLANA


Aurreko ekitaldietan bezala, 2016ko Kudeaketa-plana deritzon agiria egin zen, 2013-2016 aldirako Plan Estrategikotik zetorrena, hain zuzen ere. Kudeaketa-planean, batetik, 2015eko ekitaldiko kudeaketaren balantzea egin zen, eta, bestetik, 2016. urterako planifikaturako helburuak eta ekintzak bildu ziren: hala plangintza estrategikotik datozenak, nola IVAPen kudeaketa-sistematikaren funtsa diren prozesuetako bakoitzean sortutakoak. Halaber, kudeaketa-plan honek, Aginte-taula Integralean 2015erako ezarritako helburuen betetze-mailaren ebaluazioa biltzeaz gain, 2016. urteari zegozkion helburuak ezarri zituen.

LORTUTAKO SARIAK

2016an, Euskalit Bikaintasunerako Euskal Fundazioak Zerbitzuen karten «Q-epa» egiaztagiri bana eman zien IVAPeko Hautaketa Zerbitzuari, administrazioei zegokiena eta IZO Itzultzaile zerbitzu ofizialari.



Hautaketako Zerbitzuen Kartaren «Q-epea» egiaztagiria, administrazioei zuzendutako bertsioan



IZO Itzultzaile zerbitzu ofizialeko Zerbitzuen Kartaren «Q-epea» egiaztagiria

4.

ZERBITZUAK ETA PRODUKTUAK

PRESTAKUNTZA

PRESTAKUNTZA OROKORRA 2016

Prestakuntza-programak eta planak

- Prestakuntza-modalitatearen arabera:
 - Lineako prestakuntza eta prestakuntza mistoa (aurrez aurreko saioak dituen)
 - Aurrez aurreko prestakuntza
 - KnowInn programa: prestakuntza-ekintza (proiektuak ezartzeko prozesuekin batera doan prestakuntza)
- Irismenaren arabera:
 - Orokorrak edo zeharkakoak
 - Administrazio batek edo administrazio-unitate batek berezkoak dituenak

Prestakuntza-beharren diagnostikoak

Administrazio edo erakunde publiko batek eskatuta, kolektiboaren prestakuntza-beharrak aztertzen dira metodologia desberdinak erabiliz.

Prestakuntzaren ebaluazioa

Ikaskuntzaren ebaluazioa egiten da, probetxua ebaluatzeko estandarrak aplikatuz.

Egiten dugun ebaluazioak honako hau jakitea du helburu: ea prestakuntzaren bitartez esku-ratutako ezagupenak eta trebeziak lanpostura transferitu diren (transferentziaren ebaluazioa).

Prestakuntza-ekintzen homologazioa

Homologazioa 2007ko otsailaren 1eko Aginduaren arabera (IVAPek prestakuntza-jarduerak homologa ditzan bete beharreko eskakizunak eta prozedura arautzekoa dena, 2007ko martxoaren 6ko EHAAan argitaratua, 46. zk.).

EAEko administrazio publikoetan garapen profesionala lantzeko prestakuntza-programa

Programa honen helburua da EAEko administrazio publikoetan lan egiten dutenen garapen profesionala bultzatzeko beharrezko prestakuntza bideratzea.

Prestakuntza-programak xede hau du: EAEko administrazioek herritarrei ematen dizkieten zerbitzuak etengabe hobetzea da xedea.

2. TAULA. Prestakuntzaren programazioa eta jarraipena (2013-2016)

ADIERAZLEAK	2013	2014			2015			2016		
Aurreikusitako prestakuntza ekintzen kopurua	678	810			693			748		
Egindako ikastaroen kopurua	604	767			624			732		
Ikastaroen betetze-maila (%)	% 89	% 95			% 90			%97.9		
Matrikula kopurua	11.784	13.638			12.279			14650		
		E=2.765	G=1.127	DG*	E= 2.616	G= 891	DG*= 8.772	E=4.688	G=3.995	DG=5.967
Ikasleen asebetetzearen adierazle orokorra	7,9	8,05			8,06			7.25		
Irakasleekiko asebetetzearen adierazle orokorra	8,3	8,42			8,40			8.59		

*E: emakume / G: gizon / DG: daturik gabe

3. TAULA. Prestakuntzaren ebaluazioa

Helburuen lorpena duten prestakuntza-ekintzen kopurua	655
Matrikula kopuru osoaren gaineko aprobetxamendu-ziurtagirien ehunekoa	% 88
Matrikula kopuru osoaren gaineko aprobetxamendu-ziurtagirien ehunekoa (on-line eta ikastaro mistoetan)	% 78
Prestakuntza-ekintzen ehunekoa, zeinek estandarrak neurtzeko taula aplikatuta baitute	% 100

4. TAULA. Homologazioa

Homologazio-espedienteen kopurua	22
Behin-behineko homologazioa duten prestakuntza-ekintzen ehunekoa	% 86
Behin betiko homologazioa duten prestakuntza-ekintzen ehunekoa	% 77
Homologazio-espedienteei dagozkien ziurtagiriak	288
Erakunde eskatzaileen kopurua	9

5. TAULA. Garapen profesionala lantzeko prestakuntza-programa (2013-2016)

Erakundeak	Prestakuntza-planak				Langileak			
	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016
Udalak	29	34	32	28	10.650	11.306	11.450	9.621
Foru Aldundiak	3	3	3	3	8.223	8.145	8.097	8.285
EHU-UPV	1	1	1	1	1.548	1.874*	1.800	1.547
Ejren sailak	6	6	6	5	4.750	2.939	3.049	3.409
Ejren erakunde autonomoak	4	3	3	3	1.100	1.042	1.083	1.083
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	1	1	1	1	8.043	8.000*	7.721	8.000
Osakidetza	1	1	1	1	24.895	25.816*	25.799	25.799
Irakasleen prestakuntza	–	–	1	1	–	19.991*	19.991	19.991
Guztira	45	50	48	43	59.209	79.113	78.990	77.735

*Asteriskoa duten asistentziak kalkulatuak dira; besteak, ordea, errealak.

EVETU: HIRIGINTZA ETA INGURUMENARI BURUZKO PRESTAKUNTZA

Hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroak

Ikastaroak hiru zatitan banatuta daude:

1. Sei ikasketa-modulu teoriko-praktikoak egitea, nahitaez (400 ordu); deialdi bakar batean egin ahal dira guztiak, edo moduluka banatutako deialdietan. Bertaratze- eta aprobetxamendu-baldintzak betez gero (gutxienez % 80tan bertaratzea, eta ebaluazio-azterketa gaintzea), modulu bakoitzaren aprobetxamendu-egiaztagiria ematen da.
2. Bakarkako ikerketa-lana edo «Hirigintzako Goi Ikastaroa» egitea.
3. Aukerako praktikak erakunde edo enpresetan (300 ordukoak).

Ikasleak betekizun guztiak gaindituz gero, IVAPek Hirigintza Diploma ematen du.

2016ko urtean, bi ekintza egin dira. Alde batetik ikasturte akademiko bukatzeko «XLI (41) Hirigintza Ikastaroa» (Bilbao, 2015-2016, 400 ikastordu eta 300 ordu praktikoak) modulu bidezko prestakuntza-ekintza bukatu da (4 moduluak). Beste aldetik hasi da «XLII (42) Hirigintza Ikastaroa» (Bilbao, 2016-2017, 700 ikastordu) eta lehenengo 2 moduluak egin dira.

Matrikulatzeko beka: «XLI (41) Hirigintza Ikastaroa» 2015-2016ko ikastaroekin batera, matrikulatzeko lau beka emateko deialdia egin zen, baina bakarrik hiru esleitu ziren. Alde berean «XLII (42) Hirigintza Ikastaroan» bost beka-matrikula deialdia egin zen eta hiru esleitu ziren.

Praktikak: XLI (41) Hirigintza Ikastarorako ikasleek erakunde edo enpresetan izan dituzten praktikak 300 ordukoak izan dira (hiru hilabete gutxi gorabehera). Praktikak hautazkoak izan dira, eta eskatu dituzten ikasle guztiei (hamar) esleitu zaizkie (gizonezko lau arkitekto eta emakumezko bost arkitekto eta geografia eta lurralde antolamenduan graduatu bat). Praktikaldia osorik egin dute, Barakaldo, Beasain, Laudio, Legutio, Mungia, Santurtzi, Sestao eta Usurbilgo udaletan. Ezin izan ziren udal guztiek egindako eskabi-deak bete, praktikak egiteko ikasle kopuru nahikorik ez zegoelako.

Ikastaro monografikoak

Ikastaro monografikoak, jardunaldiak, mintegiak eta tailer laburrak Hirigintzari, Lurralde Antolamenduari eta Ingurumenari buruz. Horien artean, hauek dira nabarmentzekoak:

- «Jornadas sobre novedades en Urbanismo y Vivienda en 2016» (Bilbon, 2016ko azaroaren 29an)
- «Jornada sobre Urbanismo y Derecho de Aguas» (Bilbon, 2016eko abenduaren 15ean)

6. TAULA. EVETUKO datuak

	Prestakuntza-ekintzak	Helburuak zehaztuak dituzten prestakuntza-ekintzak	Matrikulak	Zenbat emakume matrikulatuta	Eskainitako ordu-kopurua	Ziurtagirien %
Modulu anitzeko ikastaroak	6	6	193	114	484	% 96,89
Ikastaro monografikoak	10	4	219	123	148	% 97,26
Guztira	16	10	412	237	632	% 97,08

* Datuak urte naturala



IVAPek antolatutako jardunaldia

HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZA

Hizkuntza-eskakizunak lortzera bideratutako euskara ikastaroak

- Oinarrizko ikastaroak, 3. hizkuntza-eskakizunaren gaitasun mailara artekoak:
 - Maila, modulu eta trinkotasun desberdinetakoak dira, urrian hasi eta maiatz-ekainera bitartekoak; horrez gain, udako ikastaroak ere eskaintzen ditugu.
 - Aurrez aurrekoak nahiz autoikaskuntzakoak izaten dira.
- Goi mailakoak, 4. hizkuntza-eskakizuna prestatzeko ikastaroak:
 - Aurrez aurrekoak nahiz autoikaskuntzakoak izaten dira.

Udaletan eta mankomunitateetan ordezkapenak egiteko diru-laguntzak

Euskarako ikastaroetara joateko liberatzen diren langileen ordezkapenak ordaintzeko diru-laguntzak ematen dizkie IVAPek hizkuntza-prestakuntza eta normalizazioaren arloan hitzarmena izenpetuta daukaten toki-administrazioei.



IVAPek antolatutako ikastaroa

ELEBI programa

ELEBI programak laguntza pertsonalizatua eskaintzen die erabilera planetan sartuta dauden Eusko Jaurlaritzako langileei. ELEBI programak beharizan komunikatibo antzerakoak eta lan-jardun bertsuak dauzkaten langileei eskaintzen die prestakuntza, mintegietan bilduz. Horrelakoak dira, adibidez, mintegietan biltzen direnak: diru-laguntzak kudeatzen dituzten langileak, lege-aholkulariak, estatistikariak, web-kudeatzaileak, harrera-postuetan dauden langileak...

Oro har, mintegietan lautik seira bitarteko lan-taldeak eratzen dira; astean ordu eta erdiz, batez beste. Mintegi bakoitza irakasle-tutore batek bideratzen eta gidatzen du, eta langile bakoitzak hilean bi orduko tutoretza pertsonala izaten du tutorearekin.

Sailetako normalkuntza-teknikariekin lankidetzan antolatzen ditugu mintegi horiek, beraiek ezagutzen baitituzte ondoen langileen benetako beharizanak.

Erabilera planetan sartuta dauden langileentzako berariazko hizkuntza-prestakuntza

Euskararen erabileran eragiteko xedez eskaintzen dira eta helburu eta langile-profil jakin bati begira antolatzen dira (Ikusi 10. taula).

Datuak

7. TAULA. Hizkuntza-prestakuntzako ikasleak (2015/2016 ikasturtea)

	Astean, 10 ordu	25 ordu, Barnetegia	Autoikaskuntza	4. HE	Udako ikastaro	Besterik	Guztira
E. Jaurlaritza	205	28	124	37	76		470
Foru adm.	188	59	21	17	28		313
Toki adm.	328	23	163	37	72		623
Osakidetza	632	150	262	10	144		1.198
UPV/EHU	58	24	9	7	16		114
Beste batzuk						49	49
Guztira	1.411	284	579	108	336	49	2.767* (2.020 E / 747 G)

*E: emakume / G: gizon

8. TAULA. Toki-administrazioetako ordezkapeneterako diru-laguntzak

Diru-laguntzen kopurua guztira	62.057
Hitzarmena sinatuta duten erakundeak guztira	195

9. TAULA. ELEBI

Mintegi kopurua	13
Langile kopurua	65

10. TAULA. Euskararen erabilera planetan daudenentzako hizkuntza-prestakuntza

	Taldeak	Ikasleak
1. HE: Ahozko jardunean hobetzeko ikastaroa	2	12
2. HE: Ahozko jardunean hobetzeko ikastaroa	1	12
3. HE: Ahozko jardunean hobetzeko ikastaroa	1	16
2. HE: Birziklatze ikastaroa	5	50
3. HE: Birziklatze ikastaroa	1	14
Euskarazko baliabide eta tresna informatikoak	5	63
Jendaurrean efikaziaz hitz egitea	2	17
Curso de redacción administrativa	3	35
Zergatik ez? Motibazioaren inguruko saioa	4	27
Administrazioan nola idatzi	4	42
Telefono bidezko elkarrizketak, oharrak eta mezu elektronikoak	6	57
Esaldiaren informazio-antolara zorrotzen	1	14
Bileren kudeaketa eta hizkuntza-estrategiak	2	22
Twitterren eta beste sare sozialetan nola idatzi	2	22
Hizkuntza gaitasuna sendotzeko ikastaroa	3	41
Erizaintzako lan-jardunak euskaraz lantzen	3	32
Nola sortu testu elebidunak itzulpenetara jo gabe	6	65
Harrerako lan-jardunak euskaraz lantzen	1	10
Testuak zuzentzeko moduez	4	43
Interpretazio ikastaroa	1	3
2. HE: Idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	2	19
3. HE: Idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	6	65
4. HE: Idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	4	38
1. HE: Ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	1	7
2. HE: Ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	2	18
3. HE: Ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	4	35
4. HE: Ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	3	17
Gutuna eta ofizioa	2	18
Bilera deia, eskabidea eta ziurtagiria	1	7
Bilera akta eta txostena	1	11
Hizkera Juridikoa	1	7
Weberako nola idatzi	3	43
Cómo escribir para la web	3	35
Administrazioan komunikazioa erraztu	1	14
Euskaltzaindiaren arauak	3	51
1. HE: idatzizko azterketa. Idazki labur eta informalak, kexak eta erreklamazioak lantzen	1	8
2. HE: Idatzizko azterketa. Gutuna eta artikulua lantzen	2	12
3. HE: Idatzizko azterketa. Gutun formala eta iritzi-artikulua lantzen	3	38
4. HE: Iritzi-artikulua idazteko estrategia	2	30
Arreta euskaraz emateko baliabide eta estrategiak	1	11
GUZTIRA	103	1.081

PERTSONEN HAUTAKETA ETA KOMPETENTZIEN EBALUAZIOA

HAUTAKETARAKO PROZESUAK

Epaimahaietan parte hartzea

Euskal Funtzio Publikoaren Legeak araututakoa betez, IVAPek kide titular eta ordezeko bana izendatzen du euskal administrazio publikoetako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izateko deitzen diren hautaketa-prozesuak aurrera eramaten dituzten epaimahaietan parte hartzeko.

Probak prestatzea edota zuzentzea

Zenbait administrazio eskatuta, hautaketa-prozesuetako probak diseinatzen, aplikatzen eta zuzentzen ditu IVAPek.

Lankidetzeta eta aholkularitza hautaketa-prozesuetan

- Hautaketa-prozesuari ekin aurretik, IVAPek laguntza- eta aholkularitza-lana eskaintzen du (oinarriak egin, ikasgaiak taxutu...); baita prozesuan zehar ere (logistika, lokalen kudeaketa, probak...).
- Informazioa bidaltzea (oinarrien ereduak, txosten juridikoak, eta lan-poltsetan lane-rako prest dauden langileen izenak).

Enplegu publikoko eskaintzak, prozesu handiak

EAEko Administrazio Orokorreko funtzionario edo lan-kontratuko langile finkoa izateko antolatzen diren hautaketa-prozesuen kudeaketa egiten du IVAPek.

Lan-poltsak osatzea

EAEko Administrazio Orokorren aldi baterako langile-beharrei erantzuna emateko lan-poltsak eratzeko hautaketa-prozesuen kudeaketa egiten du IVAPek.

Lan-eskaintza publikoei buruzko informazioa ematea, eta informazioaren harpidedun egiteko aukera ematea

EAEko administrazioek egindako enplegu-eskaintzei buruzko informazio egoki eta eguneratua emateaz, eta horren gaineko azken berriak interneten bidez jaso ahal izateko harpidedun egiteko aukera eskaintzeaz arduratzen da IVAP.



Lan-poltsa bateko proba-eguna

Proba psikoteknikoak eta elkarrizketak egitea

Lanpostuen egokitasuna ebaluatzeko probak taxutzea, aplikatzea eta zuzentzea edo euren ezaugarri tekniko eta pertsonaletara doitzeaz arduratzen da IVAP: elkarrizketak, proba psikoteknikoak, eta abar.

11. TAULA. Hautaketa-prozesuetako datuak

Epaimahai kalifikatzaileetan parte-hartzeak	318
Azterketak egin	59
Azterketak zuzendu	14
Lankidetzak jaso duten erakunde publikoak	103
Hautaketa-prozesuak (lankidetzak)	189

12. TAULA. Lankidetzak

Aholkularitza orokorra, oinarriak aztertu eta bestelakoak	18	% 10
Probak prestatu, zuzendu, psikoteknikoak eta elkarrizketak egin	120	% 63
Lan-poltsatutako zerrendak bidali	51	% 27

13. TAULA. Enplegu publikoko eskaintzak

Sortutako lan-poltsak	10
Lan-eskaintzetarako harpidedunak	81.664
Proba psikoteknikoak	27
Elkarrizketak	20

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatze ohiko deialdiak

Ohiko deialdiak sei hilabetean behin antolatzen ditu IVAPek EAeko administrazio publikoetako langileentzat. Horrezaz gainera, Osakidetzako bi deialdiak kudeatzen ditu IVAPek, kudeaketa-gomendioaren bitartez. Hauek dira 2016an egindako deialdien emaitza orokorrak.

14. TAULA. Emaitza orokorrak

Deituak	Aurkeztutakoak		Gainditutakoak	
8.955 E: 1.007 / G: 1.196 / DG: 6.752	5.546 E: 746 / G: 814 / DG: 4.631	% 61,93	1.201 E: 125 / G: 171 / DG: 905	% 21,65

*E: emakume / G: gizon / DG: daturik gabe

15. TAULA. Emaitza orokorrak deialdika

Deialdia	Aurkeztutakoak	Gainditutakoak
Lehen deialdia (IVAPekoa eta Osakidetzakoa)	3.695 E: 432 / G: 487 / DG: 2.776	729 (% 19,72) E: 65 / G: 108 / DG: 556
Bigarren deialdia (IVAPekoa eta Osakidetzakoa)	2.496 E: 314 / G: 327 / DG: 1.855	472 (% 18,19) E: 63 / G: 60 / DG: 349

*E: emakume / G: gizon / DG: daturik gabe

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatze deialdi bateratuak

Administrazio Publikoko erakundeek (udalek, foru aldundiek...) beren lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuak deitzen dituztenean, IVAPi eskatzen diote hizkuntza-eskakizunak egiaztatze probak egiteko eta zuzentzeko.

Hautaketa-prozesuotako hizkuntza-eskakizunak egiaztatze deialdi bateratuak antolatzen ditu IVAPek, bat edo bi hilean. Eraginkortasunari begira, deialdi berean parte hartzen dute hainbat administrazio edota hautaketa-prozesuri lotutako interesdunek.

16. TAULA. Deialdi bateratuak

Lurraldea	Deialdi kopurua	Deitutakoak	Aurkeztutakoak	Gainditutakoak
Araba	4	429 E: 16 / G: 21 / DG: 392	271 (% 63,17) E: 9 / G: 18 / DG: 244	89 (% 32,84) E: 7 / G: 6 / DG: 76
Bizkaia	4			
Gipuzkoa	4			

*E: emakume / G: gizon / DG: daturik gabe

2016an, deialdi orokor zein bateratuen bidez, 1.290 azterketarik egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat.

AZTERLAN ETA IKERKUNTZAREN SUSTAPENA

IKERKETARAKO LAGUNTZAK

Administrazioari eta Zuzenbide Publikoari buruzko ikerketa-lanak sustatzeko deialdiak taxutzen eta kudeatzen ditu IVAPek, politika-, lege-, ekonomia- eta administrazio-arloetan; bereziki gure lurraldearen berezitasunei dagokienez.

IKERKETA SARIAK

Jesus Maria Leizaola Sariaren deialdia taxutzen eta kudeatzen du IVAPek; sari honek euskal autonomiari buruz hainbat ikuspuntu zientifikotatik egindako lanak aurkeztu daitezke.

LEGE ETA ANTOLAKUNTZA ARLOKO AHOLKULARITZA LANAK

EAEko Administrazio Publikoak antolatu eta hobetzearekin zerikusia duten gaien gainean, eskatu dizkiguten azterlanak eta txostenak egitea, aholku-eskeei erantzutea eta gai horiei buruzko arauen aurre-egitasmoak prestatzea.

HERRI ARDURALARITZAZKO EUSKAL ALDIZKARIA

Herri Ardularitza Euskal Aldizkariaren idazkaritza teknikoaren kudeaketa.

PERTSONAK ETA ANTOLAKUNDE PUBLIKOAK KUDEATZEKO EUSKAL ALDIZKARIA

Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkariaren idazkaritza teknikoaren kudeaketa.

17. TAULA. Taula Ikerketa-lanak eta laguntzak

Egindako ikerlana Deialdia: 2015-2016	«¿Es posible financieramente un pilar básico de previsión social en Euskadi? Factores claves» (Noemí Peña Miguel, Ana Fernández Sainz eta Joseba Iñaki de La Peña Esteban)
Esleitutako laguntzak lanak egiteko. Deialdia: 2016-2017	«La administración pública vasca y la recuperación de la industria: los retos para las estrategias de reindustrialización inteligentes» (Javier Bilbao Ubillos, Vicente Camino Beldarrain eta Miren Gurutze Intxaurburu Clemente)

Leizaola Saria 2016: Epaimahaiak, aho batez, Jesús María Leizaola saria, *ex aequo*, ikerlan hauei ematea erabaki du:

- «La redistribución entre Territorios Históricos dentro del sector público vasco», Amaia Urkiola Fernándezena.
- «Euskera y régimen foral vasco: lengua, comunicación, poder y derecho en Bizkaia, Gipuzkoa y Álava (1500-1876)», César Gallastegi Aranzabalena.

JARDUNALDI ETA MINTEGI BEREZITUAK

Topaketak taxutzea eta antolatzea, EAEn berezitasunekin, Administrazioaren Zientziari edo Zuzenbide Publikoari lotutako gaietan sakontzeko.

18. TAULA. Jardunaldi eta mintegi berezituak

Izenburua	Data	Lekua
Euskadiko Toki-Erakundeen Legearen aurkezpena	Apirilak 25	Bilbao
Les crises de l'espace de liberté, sécurité, justice	Ekainak 1, 2 eta 3	Donostia
EBko oinarrizko eskubideen babesaren jurisdikzio konstituzionala. ASJEari buruzko aipamen berezia	Uztailak 11, 12 eta 13	Donostia
Gudatik globalizarioa: lehen Eusko Jaurlaritzaren 80. urteurrenean	Uztailak 12, 13 eta 14	Donostia
Emakumeak Araban: iragana, oraina eta geroa	Urriak 20	Elorriaga (Araba)
Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren aplikazio judiziala	Azaroak 24 eta 25	Donostia
Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa sortu zeneko 80. Urteurrena	Abenduak 16	Bilbao



IVAPek antolatutako jardunaldia

ARGITALPENAK ETA LIBURUTEGIA / DOKUMENTAZIO-GUNEA

ARGITALPENEN EDIZIOA ETA SALMENTA

Lanak, txostenak eta liburuak argitaratzea

Argitaratze-proiektuen azterketa, erakundearen argitalpenen edizioaren segimendua, argitalpen horien salmenta eta banaketa.

2016an argitaratutako lanen zehaztapenak jarduera-txosten honen bosgarren kapitulan jaso dira.

LIBURUTEGIA / DOKUMENTAZIO-GUNEA

Erreferentzia eta informazio bibliografikorako zerbitzua

Liburutegia / Dokumentazio-guneko materialak eskuratzeko eta erabiltzeko arauen, haien baliabideen eta zerbitzuen berri ematea erabiltzaileei, baita informazioa eta agiriak bilatzen laguntzea ere.

Funtsen kontsulta

Bertako gelan Dokumentazio-guneko monografiak eta aldizkako argitalpenak kontsultatze-ko aukera ematea.

Mailegu-zerbitzua

Funts monografikoak bertatik atera eta, maileguaren bidez, etxera eramateko aukera ematea.

Liburutegi / Dokumentazio-guneen arteko mailegu-zerbitzua

Erabiltzaileak eskatutako dokumentuak beste liburutegi edo dokumentazio-gune batzuen bitartez eskuratzea eta, era berean, gainerako liburutegiek guri eskatutakoa ere euren esku jarzea. Zerbitzu hau Eusko Jaurlaritzako langileei baino ez zaie eskaintzen.

Informazioaren gaikako hedapena egiteko zerbitzua

Aldiro-aldiri, profil batzuk ezarrita, IVAPek espezializazio-arlotzat dituen gaiei buruzko informazio buletinak egitea.

Web bidezko zabalkunde-zerbitzua

IVAPen webgunearen bitartez honako produktu hauek zabaldu nahi dira:

- Liburutegi / Dokumentazio-guneko katalogoa
- Dokumentu berrien buletina
- Aukeratutako Informazioaren Hedapenerako buletinak
- Esteka interesgarriak
- Kontsultak egiteko postontzia

19.TAULA. Liburutegia / Dokumentazio-gunearen datuak

Erreferentzia eta informazio bibliografikorako zerbitzua	120
Funtsak kontsultatzea	59
Mailegu-zerbitzua	700
Dokumentazio-guneen arteko mailegu-zerbitzua	13
Informazioaren gaikako hedapena egiteko zerbitzua	42 buletin
Web bidezko zabalkunde-zerbitzua	3.635 kontsulta webgunean



IVAPeko Liburutegia / Dokumentazio gunea

ITZULPENGINTZA, INTERPRETAZIOA, TERMINOLOGIA ETA ADMINISTRAZIO-HIZKERA

IZOk izan zuen berrantolaketa sendotuz joan da 2016an, 48/2012 DEKRETUA indarrean sartu zenetik lau urte eta erdi igarota. Itzultzaile Zerbitzu Ofizial berrituak osorik egin duen laugarren urtea izan da, eta itzulpen-, interpretazio- eta terminologia-arloak hezur-mamitzen doaz pixkanaka. Beraz, hemendik aurrera has gitezke datuak konparatzen, urtez urteko bilakaera nolakoa den ikusi ahal izateko, lau urte baititugu aldeertzeko moduan.

Euskaratik eta euskararako itzulpena

Ildo horretatik, azken lau urteotan jasotako datuek egitura bera dute, eta errealitate berrari erantzuten diote. Jakinaenez, 2012. urtea iragaite-urtea izan zen (lau hilabete eraberritu aurretik, eta zortzi eraberritu ostean), IZOren egitura zaharretik berrira igaroteko urtea.

Itzulpengintza juridikoa

Administrazio publikoaren jardunerako beharrezko diren lege-testuak euskaratzen eta, ondoren, sareratzen jarraitu dugu.

12 lege-proiektu itzuli ditugu Jaurlaritzarentzat; Estatuko Aldizkari Ofizialerako, ordea, 14 lege-mailako testu eta 276 eguneroko aurkibide itzuli ditugu.

IDABA

Itzulpenen datu-basea 8.454 testu izatera iritsi da eta, guztira, 1.085 erabiltzaile ditu, udal-letako eta foru-aldundietako erabiltzaileak ere badira-eta tartean. Urte osoan, 113.669 kontsulta izan du (aurreko urtean, 138.582).

Interpretazioa

Aurten ere, ahozko itzulpena, aldiberekoa, egiten jarraitu dugu (administrazioko batzorde eta bileretan, eta biltzar edo asanbladetan). Guztira, 121 saio izan dira 2016an.

Terminologia

Terminologia-atalak itzultzaileei eta IZOko langileei laguntza ematen die, terminologiako kontsultei erantzunez, eta Euskalterm terminologia datu-base publikoa elikatzen du.

DUDANET

Doako kontsulta-zerbitzua da, administrazio- eta lege-arloko terminologian eta hizkeran sor daitezkeen zalantzak argitzeko. 2016an, 289 kontsultari erantzun diogu (Ikusi 24. taula).

ELET

Aplikazio informatiko edo web-atari integratu honek hainbat hizkuntza-baliabide eskaintzen ditu, euskaraz errazago lan egiteko; oso aplikazio erabilerraza eta intuitiboa da.

2016an 1.762 erabiltzaile izan ditugu eta, guztira, 64.463 kontsulta egin dituzte.

20. TAULA. IZOren lan-karga

	Espedienteak	EHAArako hitzak	Bestetarako hitzak	Hitzak, guztira
Itzultzeko eta berrikusteko onartutakoak	12.429	8.394.613	15.247.630	23.642.243
Itzultzeko onartutakoak	8.861	3.602.726	15.084.908	18.687.634
Berrikusteko onartutakoak	3.568	4.791.887	162.722	4.954.609
IZOk itzulitakoak	4.801	2.931.226	3.714.472	6.645.698
Hornitzaileek itzulitakoak	4.060	671.500	11.370.436	12.041.936

Bezeroei dagokienez, hauek izan dira IZOren bezeroak 2016an:

21. TAULA. Itzulpengintzako bezero-motak

	Itzultako hitzak	Berrikusitako hitzak	Hitzak, guztira
EAEko Administrazioa	15.020.716	4.105.278	19.125.994
Erakunde publikoak	3.243.055	849.331	4.092.386
Estatuko Administrazioa	373.807		373.807
Tokiko Administrazioa	50.056		50.056

22. TAULA. Interpretazio-saioak (2013-2016)

	2013	2014	2015	2016
Interpretazio-saioak	113	103	119	121

23. TAULA. Interpretazio-saioak bezero motaren arabera

Bezero mota	Saio kopurua	Ehunekoak (%)
EAEko Administrazioa	121	% 61,15
EAEko Tokiko Administrazioa		% 19,85
Enpresak eta elkarteak		% 19

24. TAULA. DUDANET

Kontsulta mota	Kontsulta kopurua	Ehunekoak (%)
Terminologia	289	% 93
Itzulpengintza		% 2,5
Administrazio-hizkera		% 4,5

25. TAULA. IDABA (2013-2016)

	2013	2014	2015	2016
Dokumentu kopurua	6.820	7.110	7.847	8.454
Erabiltzaile kopurua	809	877	1.074	1.085
Kontsulta kopurua	149.376	158.537	138.582	113.669

26. TAULA. Itzulpengintza juridikoa

Eusko Jaurlaritzaren lege-egitasmoekin lotutako testuak	12 testu
Estatuko Aldizkari Ofizialaren euskarazko gehigarria	
• Eguneroko I. atalaren aurkibidea	276 aurkibide
• Lege-mailako xedapenak	14 testu

Administrazioa Euskaraz aldizkaria

Hiru hilabeterik behin argitaratzen den aldizkaria, 1993an sortua.

27. TAULA. Administrazioa Euskaraz aldizkaria

Argitaratutako zenbakiak	Harpidedun kopurua
91	14.662
92	14.709
93	14.719
94	14.769

- Aldizkariaren ale guztiak Interneten daude eskuragarri, IVAPeko web-orrian.
- Aldizkariarekin batera, *Solasaldiak* izeneko eranskina ematen dugu argitara. 26 orrialdeko eranskin horretan, ospe handiko pertsonaiaren bati egindako elkarrizketa sakon bat eskaintzen dugu urtean behin. 2016an, Daniel Innerarity elkarrizketatu dugu.

Bestelako argitalpenak

- *Administrazio-hizkera argia* bloga.

Administrazio Hizkera Atalak aurtun abian jarri duen blogean 19 sarrera argitaratu ditugu, euskaraz zein gaztelaniaz.

INFORMATIKAKO UNITATEA

IVAPen aplikazio informatikoen kudeaketa eta mantentze-lanak


Baldintza teknologiko berrietara egokitzeko beharrezkoak ziren migrazioak egin dira, baita funtzionaltasun berriak aplikazioetara egokitzeko mantentze-lanak ere (28. taula).

28. TAULA. IVAPen kudeaketa-aplikazioak

Aplikazioa	Eremua	Barne-erabiltzaileak		Kanpo-erabiltzaileak
		G	E	
J-81 Prestakuntzaren kudeaketa	Prestakuntza:	9	34	Prestakuntzako koordinatzaileak (48)
				Ejko langile guztiak, automatrikulaziorako moduluan eta norberaren espedientearen kontsultan
Q-41 Hautaketa-prozesuen kudeaketa	Hautaketa	9	21	Interneteko zatian, hautaketa-prozesuan parte hartzen duten guztiak Trafiko Zuzendaritzako 4 erabiltzaile, Legebiltzarreko 3 erabiltzaile, Poliziaren Ikastegiko 6 erabiltzaile
M-59 EPEen kudeaketa	Hautaketa	5	12	Interneteko zatian, hautaketa-prozesuan parte hartzen duten guztiak
X-73 Euskara-ikastaroen kudeaketa	Euskara - Prestakuntza	5	10	Solaskideak (18)
				Ejko langile guztiak, automatrikulaziorako moduluan eta norberaren espedientearen kontsultan
K-81 Hizkuntza-eskakizunen kudeaketa	Euskara - Ebaluazioa	7	10	Ejko langile guztiak, izena emateko moduluan eta norberaren espedientearen kontsultan.
T-59 <i>Administrazioa</i> Euskaraz-en kudeaketa	Euskara-Administrazio-hizkera	3	5	Interneteko zatian (kontsulta eta harpidetza), librea
R-75 IZO espedienteen kudeaketa	Itzulpena	21	29	195 erabiltzaile eskatzaile, Ejren saretik
R-21 Itzulpen-memoriak	Itzulpena	38	59	921 erabiltzaile erregistratu (librea, baina eskaera egin behar da)
S-20 Argitalpenen kudeaketa	Azterlanak	1	8	Interneteko zatian, librea (sarbidea eta kontsulta)
SDL-TRADOS Itzulpena laguntzeko tresnak	Itzulpena	18	25	
Absysnet Liburutegi-kudeaketa	Liburutegia	0	3	Interneteko katalogo librerako sarbidea

Aplikazioa	Eremua	Barne-erabiltzaileak		Kanpo-erabiltzaileak
		G	E	
DUDANET	Euskara - Administrazio-hizkera	7	5	Kontsultak, librea
U-94 HAUTANET	Hautaketa	8	10	Sarbidea eskatu duten herri-administrazio guztiak, Internet bidez (150)
Y-52B Laguntzen tiradera	Prestakuntza Azterlanak	8	18	Laguntza eskatzen duten pertsona edo/eta herri-administrazio guztiak, Internet bidez
T59-B Herri Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria	Argitalpenak	2	7	Interneteko zatian, librea (sarbidea eta kontsulta)
T59-B Pertsonak eta Antolakunde Publikoak kudeatzeko Euskal Aldizkaria	Argitalpenak	2	5	Interneteko zatian, librea (sarbidea eta kontsulta)

Egokitzapeneko mantentze-lanetan eta informatika-garapen berrietan 8.980 ordu erabili dira. Horien artean, ondorengoak nabarmentzen dira:

	<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza-ikastaroen ziurtagiri elektronikoak egitea, bilagailua zehaztuta eta egoitza elektronikoan egiaztatzeak aukera ematen duela. • Hautaketa-prozesuak kudeatzeko aplikazioan, hainbat hobekuntza egin dira, hautaketa-prozesuetan parte hartzen dutenek aukera izan dezaten esperientzia profesionalaren eta ikastaroen merezimenduak plataformara igotzeko.
---	---

Migrazioei dagokienez, hau nabarmendu behar da:

- Moodle autoprestakuntza-plataformaren migrazioa, 2.9.3 bertsiotik 3.1.4. bertsiora.
- IVAPeko aplikazio guztien migrazioa, .eus-era.

Garapen informatiko berriak


2016. urtean Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren kudeaketa integralerako aplikazio berriaren analisi tekniko eta funtzionala bukatu da, eta 2017an kontratatuko da. Horrez gain, digitalizatu egin da euskara-ikastaroen ordezkapenentarako diru-laguntzak eskatzeko prozesua.

Beste erakundeekiko informatika-lankidetzak

Eusko Legebiltzarraren (letradu, informatika-teknikari eta komunikazio-teknikarien prozesua) eta Getxoko Udalaren esku jarri da hautaketa-prozesuak kudeatzeko aplikazioa, prozesu horiek gauza ditzaten, eta euskarri informatiko osoa eman zaie. Halaber, 20.735 azterketa zuzendu dira automatikoki.

IVAPen webgunea

Webguneari dagokionez, 2016. urtean 479.912 bisita egin dituzte eta 5.096.659 orrialde begiratu, hau da: batez beste, 3,90 orrialde bisita bakoitzeko. 2015arekin alderatuta, % 47,24 jaitsi dira erabiltzaileak; batik bat, lan-poltsak osatzeko deialdirik egin ez delako. Garrantzitsua da, nolana ere, beste datu hau azpimarratzea: erabiltzaile-kopurua jaitsita ere, begiratutako orrialde kopurua % 17,65 jaitsi da, eta horrek erakusten du bisitarien fidelizazioa handia dela. Azkenik, % 7,46 igo da webgunera telefono mugikorretatik sartu direnen kopurua, eta, ondorioz, orriaren zati handi bat berriz diseinatu beharko dugu, irisgarritasun hobea izan dezan.



Halaber, webgunean argitaratu dugu gardentasunari buruzko IVAPeko informazioa ondoko atalekin: IVAPi buruzko informazioa, harremanak herritarrekin eta gizartearekin, gardentasun ekonomikoa eta finantzarioa eta kontratazioak.

5.

ARGITALPENAK

IVAPEK BAKARKA ZEIN BESTE BATZUEKIN BATERA ARGITARATUTAKO MONOGRAFIAK

ALONSO ARCE, Iñaki

Derecho de la Unión Europea y Concierto Económico : principios vertebradores de la autonomía tributaria foral en el marco de la Unión Europea. Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundea, 2016

ISBN: 978-84-7777-482-2. ISBN (ed. Digital): 978-84-7777-483-9

BASALDUA, Pedro de

Euzkadi, la guerra antes del Estatuto : desde la Secretaría del Gobierno de Vizcaya. Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundea, 2016

ISBN: 978-84-7777-492-1. ISBN (ed. Digital): 978-84-7777-493-8

COMPAINS SILVA, Eneko

Botere konstituziogilea latinoamerikar konstituzionalismo berrian: Venezuela, Bolivia eta Ekuadorreko azken prozesu konstituziogileen analisi konparatu bat. Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundea, 2016

ISBN: 978-84-7777-499-0. ISBN (ed. Digital): 978-84-7777-500-3

DÍAZ HERNÁNDEZ, Onésimo

En la lucha por la autonomía vasca : la situación política y económico-administrativa de la Diputación de Álava (1900-1923). Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundea, 2016

ISBN: 978-84-7777-490-7. ISBN (ed. Digital): 978-84-7777-491-4

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA / COMISIÓN DE ÉTICA PÚBLICA

Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordearen memoria 2015 / Etika Publikorako Batzordea = Memoria de la Comisión de Ética Pública del Gobierno Vasco 2015. Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2016

ISBN: 978-84-7777-479-2. ISBN (ed. Digital): 978-84-7777-480-8 (castellano). ISBN (ed. Digital): 978-84-7777-481-5 (euskara)

GUERRERO COLMENARES, Marthelena

La libertad de antena : perspectiva constitucional del derecho a crear medios televisivos. Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de la Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2016

ISBN: 978-84-7777-468-6. ISBN (ed. Digital): 978-84-7777-470-9

IVAP

Jardueren oroitza 2015 / Memoria de actividades 2015

Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de la Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2016

ISBN: 978-84-7777-494-5

JIMÉNEZ ASENSIO, Rafael

Los frenos del poder: separación de poderes y control de las instituciones. Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea; Madrid, Marcial Pons, 2016.

ISBN: 978-84-9123-070-0.

LASAGABASTER HERRARTE, Iñaki (dir.)

La cooperación transfronteriza en Europa: una mirada desde Euskal Herria. Oñati: Instituto Vasco de Administración Pública = Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2016

ISBN: 978-84-7777-471-6. ISBN (ed. Digital): 978-84-7777-472-3

MERINO JARA, Isaac y UGARTEMENDIA ECEIZABARRENA, Juan Ignacio (dir.)

Fiscalidad internacional desde la perspectiva del País Vasco. Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de la Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2016

ISBN: 978-84-7777-501-0. ISBN (ed. Digital): 978-84-7777-502-7

MOTA ZURDO, David

Un sueño americano : el Gobierno Vasco en el exilio y Estados Unidos (1937-1979). Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de la Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2016

ISBN: 978-84-7777-475-4. ISBN (ed. Digital): 978-84-7777-476-1

OCHOA GÓMEZ, M.^a Pilar (Coord.)

Manual de garantía y protección de la ordenación urbanística. Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de la Administración Pública = Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea, 2016

ISBN: 978-84-7777-477-8. ISBN (ed. Digital): 978-84-7777-478-5

SANTAMARÍA ARINAS, René Javier

Glosario comparado sobre la reforma del régimen jurídico del Sector Público y del Procedimiento Administrativo Común. Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundea, 2016

ISBN: 978-84-7777-495-2. ISBN (ed. Digital): 978-84-7777-496-9

UGARTEMENDIA ECEIZABARENA, Juan Ignacio y LABAYLE, Henri (dir.)

La tutela judicial de los derechos fundamentales en el espacio de libertad, seguridad y justicia de la Unión Europea. Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea, 2016

ISBN: 978-84-7777-484-6. ISBN (ed. Digital): 978-84-7777-485-3

URRUTIA BADIOLA, Andrés M.^a

Lengua vasca, cooficialidad lingüística y relaciones jurídicas “inter privados” : análisis desde la perspectiva del euskera en el derecho privado español, en el francés y en el de la Unión Europea. Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea, 2016

ISBN: 978-84-7777-497-6. ISBN (ed. Digital): 978-84-7777-498-3

IVAPEN ARGITALPEN SERIATUAK

Administrazioa Euskaraz


Oñati (Gipuzkoa): Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundea = Instituto Vasco de Administración Pública, 1993. ISSN:1576-5563. 2016: 91, 92, 93 eta 94 zkia. «Solosalldiak» 13. zkia.

Herri-Ardularitzazko Euskal Aldizkaria = Revista Vasca de Administración Pública

Oñati (Gipuzkoa): Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundea = Instituto Vasco de Administración Pública, 1981. 2016: 104(I), 104(II), 105 eta 106 zkia.

Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria = Revista Vasca de Gestión de Personas y Organizaciones Públicas.

Oñati (Gipuzkoa): Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundea = Instituto Vasco de Administración Pública, 2011. ISSN: 2173-6405. 2016: 10 eta 11 zkia.



IVAPeko argitalpen batzuk

6.

IVAPeko KIDEEN PARTE-HARTZEA BILTZARRETAN, JARDUNALDIETAN ETA ADITUEN FOROETAN

- Hizkuntza-baliabideen kudeaketa lantegia (*European Language Resource Coordination*).
- IVAPeko lanpostuen poltsen kudeaketa. Arabako Foru Aldundiak antolaturiko jardunaldia.
- Administrazioan sartzeko azalpenak eta ekonomialarien betekizunak. Sarriko Unibertsitateak antolaturiko jardunaldia.
- Administrazioan sartzeko azalpenak eta ekonomialarien betekizunak. Bizkaiko ekonomialarien elkargoak antolaturiko jardunaldia.
- Enplegu publikoaren kudeaketa, Arrasateko Udalak antolaturiko jardunaldia.
- Administrazio publikoko enpleguaren jardunaldia, Gasteizko Udalak antolatuta.
- Ezagutzaren kudeaketa IVAPen, «IX Jornadas de modernización y calidad», Malagako Udalak antolatuta.
- Telelanaren kudeaketa IVAPen, «IX Jornadas de modernización y calidad», Malagako Udalak antolatuta.
- Pertsonen harrera prozesua, Kudeaketa aurreratuaren europar astean.
- Prozesuen mapa egokituz zeharkakotasuna areagotzen, Kudeaketa aurreratuaren europar astean.
- IVAPeko bloga, Kudeaketa aurreratuaren europar astean.
- Kontsumobide eta Emakundeko ordezkariak IVAPera etorri ziren, pertsonen gogobetetze maila neurtzeko ebaluazioaren prozesua eta pertsonen harrerarena ezagutzera, besteak beste. Halaber Akitaniako eskoletako ordezkariak IVAPeko kudeaketa sistema eta prestakuntza arloa ezagutu nahi izan dituzte.



2017rako HELBURU NAGUSIAK

IVAP osorako

1. 2017-2020rako Plan Estrategikoa egitea eta onartzea
2. 2017ko Kudeaketa-Plana onartzea
3. Autoebaluazioa egitea, kanpo-kontrastearekin
4. Bezero instituzionalen gogobetetasuna neurtzeko 6. inkesta egitea
5. 2016ko Oroitza argitaratzea
6. IVAP berrikuntzaren bidean jardunaldia antolatzea

Koordinazio eta Kudeaketako Idazkaritza

1. *Aurrerabide* programarekin lankidetzan jarraitzea
2. Hirigintza-ikastaroaren XLII emanaldia burutzea
3. *Leizaola Saria* deitu eta ematea
4. EHUaren *Udako ikastaroetan* bi ikastaro antolatzea
5. Etika eta Jokabide Kodeari atxikitako pertsonentzat bi hitzaldi antolatzea
6. Zerbitzuen Karta ebaluatzea: (Liburutegi eta Dokumentazio Gunea)
7. *Herri-Arduralaritzazko Euskal Aldizkariaren* hiru zenbaki argitaratzea
8. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin hitzarmena

Hautaketa eta Prestakuntzako Zuzendariordetza

1. Nortasun- eta gaitasun-proba batzuk euskaratzea
2. Konpetentzia digitalak oinarrizko mailan ziurtatzeko sistema zehaztea
3. Zerbitzu Kartak ebaluatzea (Hautaketa: Herritarrentzat eta Prestakuntza)
4. Pertsona eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Aldizkariaren hiru zenbaki argitaratzea
5. Hezkuntzako irakasleen deialdian lankidetzan ematea
6. Eusko Jaurlaritzarako hainbat lanpoltsa osatzeko hautaketa-prozesua gauzatzea
7. Herri Administrazioentzako prestakuntza finantzatzeko seigarren programa
8. Hautaketa prozesuen balidazioari buruzko azterlana burutzea

Euskarako Zuzendariordetza

1. Tramitazio elektronikorako DACIMArekiko lankidetzan jarraitzea
2. Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko bi deialdi orokor egitea
3. Itzulpen-memorien Banku Publikoa martxan jartzea
4. *Administrazioa Euskaraz* aldizkariaren bost zenbaki argitaratzea
5. *Idazlagun* zuzenketa-zerbitzua martxan jartzea